

Nork ez du maite Teodoro?

EKUATORE GINEAKO BOZAK. Obiangek botoen %99 lortu zituen igandean. Bortxazko atxikimendua, hura gustuko ez duenak bizia arriskatzen baitu, oposizioaren arabera

Arantxa Elizegi | DONOSTIA

Hondartza Beltzeko kartzela infernu gisa deskribatzen zuten 70eko urteetako presoek bertatik irten zirenean: torturak, hilketak, bizi-baldintza eskasak, gizonezko eta emakumezkoen arteko bereizketarik ez espetxean, polizien eta presoek bortxaketak... 30 urte geroago, bere horretan segitzen du egoerak, Freedom House GKEk jakinarazi duenez. Diferentzia ia bakarra hauxe da: Malaboko espetxeko orduko zuzendaria Ekuatoreko Gineako presidentea da orain.

Orduko diktaduran eta oraingo *demokrazian* bide luzea egin du Teodoro Obiang Nguemak. Joan den igandean, botoen %99 eskuratu zituen presidentetzarako bozetan. Herriar guztiek sostengatu zuten, nonbait, haren boterea «Jainkoarengandik berarengandik» datorkiolako, hark behin baino gehiagotan esan duenez. Oposizioak, ordea, prozesua kritikatu du. Bere ustez, Ekuatore Ginean dagoena ez da benetako demokrazia, eta bozak ez dira izan legezkoak. Hori dela eta, Obiangen kontrako lau alderdi nagusietako buruak lehiatik erretiratu ziren azken unean.

Espainiaren kolonia ohian duela bederatzi urte egin ziren lehen hauteskundeak, eta urte hartan ere Obiangek eskuratu zituen botorik gehien-gehienak. Gauza bera gertatu da orain, baina kasu honetan, oposizioak bere ahotsa nazioartera helaraztea lortu du.

Igandeko bozak gaitzesteko hamaika adibideren berri eman dute sektore horiek, zera salatzeke: Obiangen aldeko botoa ematen ez zuenaren anonimotasuna ez zen bermatzen, eta horrela, haren askatasun eta se-



MANUEL H. DE LEON / EFE

Teodoro Obiang Nguema, Ekuatore Gineako presidentea.

gurtasun fisikorako eskubideak urratzen ziren.

Celesto Bonifacio Bacala egungo presidentearen arerio nagusiaren arabera, bozkatzerako joan zen jendeak ezin izan zuen eman boto sekreturik, mahaian zeuden soldaduek ez baitzioten horretarako aukerarik eman. Kasu askotan, bozkalekuak itxi aurretik bildu zituzten emaitzak.

Beste leku batzuetan, berriz, botoa erakusteari uko egin zion jendearen izena zerrenda bate-

an jarri zuten militarrek. Hori guztia ikusita, mahaian zeuden oposizioko hainbat ordezkari handik alde egin nahi izan zuten protesta modura, baina soldaduek berriz esertzera eta lanean jarraitzea behartu zituzten pistolekin mehatxatuz.

Etengabeko zapalkuntza

Teodoro Obiang 1979an heldu zen boterera, bere osaba Francisco Macias Nguema diktadorea estatu kolpe baten bidez hil ostean. Presidentetza lortu

zuen une berean hasi ziren bere aurkako salaketak, horietako gehienak giza eskubideen aldeko erakundeek egindakoak. Zapalkuntza urteetan luzatu da.

Egoera hori gogortu egin da duela bi urte Bioko irlan petrolio aurkitu zutenetik. Lurralde horretako etniek denbora luzea daramate independentziaren aldeko borrokan, eta azkenaldian areagotu egin dira enfrentamenduak.

Obiangen oposizioa bera ere gero eta txikiagoa da, gehienak kartzelan edo erbestean baitaude. Aurtengo uztailean, Fabian Nseu Guema oposizioko buruzagietako bati urtebeteko kartzela zigorra ezarri zioten, Internetez «presidentearen aurkako irainak» zabaltzeagatik. Epaike- ta egin ziotenean, fiskalak hogeituro urteko kartzela zigorra eskatu zuten haren aurka, *irain* horiek jasotzen zituen gutuna berak idatzi zuelakoan. Hilabete batzuk geroago, Laurentino Esono Mibuy idazleari bi urteko zigorra ezarri zioten, ustez berak izan idatzi baitzuen gutuna. Epaietan izan zirenek ezin izan zuten gutuna ikusi.

Lau aste lehenago, gutxienez 60 lagunek sei eta hogeituro urteko kartzela zigorrak jaso zituzten, ustez estatu kolpea prestatzen ari zirelako. Horien artean zegoen Placido Mico Abogo oposizioko politikari garrantzitsuenetarikoa bat. Hasieran, 144 izan ziren estatu kolpearekin ustez zerikusia izateagatik Poliziak atxilotu zituen pertsonak.

Baina entzun diren hitzak ez dira oposizioarenak bakarrik izan; gobernuak ere izan du zeresana hauteskundeetan gertatutakoaren inguruan. Clemente Engonga Barne ministroaren arabera, oposizioko alderdiak hauteskundeetatik erretiratzea ez zen legezko erabakia izan. Engongak «axolagabe eta antidemokratikotzat» jo du oposizioko politikarien jarrera.

Beharlerik ez

Joan den asteburuan, aireportuak itxi egin zituen Gobernuak. Ekintza horren helburua nazioarteko begiraleen presentzia saihestea izan zela adierazi du oposizioak. Hala ere, Ahmed Rajab AEBetako gobernuak kanpoko erakunde bateko kidea bertan izan zen. Haren testigantza ezin argiagoa izan da: «Legezkoak izan ez direnak ez dira hauteskundeak bakarrik izan, bozketen aurreko kanpaina ere mehatxuetan oinarritu du Gobernuak. Ondorioz, jendea ez

34 urteko diktadura

Ekuatore Gineako biztanleak ohituak daude diktadura baten pean bizitzen, hala egon baitira azken 34 urteotan. Aldatu den bakarra diktadorearen izena izan da. Hasieran, Francisco Macias Nguema zegoen agintean. Egun, berriz, Teodoro Obiang Nguema.

1844. Hasieran Portugalen eta Espainiaren artean banatuta bazegoen ere, urte horretan, Bioko irla espainiarraren esku geratu zen. Horrela jaio zen Ginea Espainiarra.

1968. Gineak kolonia izateari utzi eta independente bihurtu zen. Francisco Macias presidente izendatu zuten.

1979. Teodoro Obiang Nguemak osabaren gobernuaren aurkako estatu kolpea egin eta boterea eskuratu zuen.

1993. Ekuatore Gineako bozak egin ziren lehen aldiz. Oposizioko alderdiek legez kontrakoak zirela esan eta boikotatu egin zituzten.

1996. Bigarren hauteskunde deialdia egin zen, eta berriz ere Obiang atera zen garaile, botoen %99ekin. Bioko uhartean petrolio aurkitu zuten.

1998. Biokoren independentziaren aldeko talde bat atxilotu zuten, militarren aurkako ekintzak egitea egotzita. Handik gutxira, ustez eraso horietan parte hartu zuten hamabost lagun heriotza zigorra ezarri zion epaitegi militar batek.

2002. 144 pertsona atxilotu dituzten ustez Obiangen aurkako estatu kolpe bat prestatzeagatik. Horietatik 68k sei eta hogeituro urteko kartzela zigorrak jaso dute. Horien artean dago Placido Mico, oposizioko burua.

KANPAINA

Promesak eta mehatxuak nonahi

Beste alderdiek bezala, Obiangenak ere bozetarako kanpaina egin zuen, kanpaina berezia. Emakume, gazte eta beste alderdietatik joandako jendea zuzendu zitzaizen presidentea. Emakumeei, dibortzioaren ostean dotea berreskuratzeko aukera emango diela esan zien; gazteei, AEBetan ikasteko bekak izango dituztela agindu zien; eta beste alderdiak uzteko prest zirenei aukera hobeak eskainiko dizkiela esan zien.

Hori kanpainaren alde bat besterik ez da izan. Leku askotan, Armadak oposizioaren hitzaldietara joandako herritarrak mehatxatu zituen. Horretaz gain, beste alderdiek hedabideetan agertzeko oso aukera urriak izan dituzte, horiek ere Obiangen gobernuaren menpe baitaude.

Oztopo horiek gainditu eta bozak lortu ahal izateko, batasunaren aldeko kanpaina egin zuten oposizioko alderdiek. Gehienek beldurra gainditu eta gobernuan dagoen taldearen aurkako boza emateko deia egin zuten ekimen horien bidez. Hala ere, gobernuaren presioak indar handiagoa izan du, eta igandean, herritarren artean hedatutako beldurra nagusitu zen.

da ausartu beste inori botoa ematen». Hala ere, GKEko ordezkariaren arabera, ez da erraza izango hori guztia frogatzea.

Bitartean, Europako Batasunak oposizioko kideentzako amnistia eskatu dio Obiangi, eta giza eskubideak errespetatzeko. Ez dirudi Hondartza Beltzeko kartzelako zuzendari ohia horregatik kezkatutik dagoenik: bozak irabazi ditu eta «Jainkoak berak» eman dion boterean segitzeko prest dago.